

Keinuak ez direla nahiko eta PPk eta PSOEk irtenbideak azaldu behar dituztela dio EAJk

Orejaren erasoari aurre egiteko aukera paregabatzat jo du martxoaren 12a Txabarrik

Aitziber Iartza / Donostia

EAJk Espainiako Kongresu eta Senaturako Gipuzkoako hautagaiak aurkeztu zituen atzo. Prentsaurrekoan Joseba Egibarrek EAJren ardatzak azaldu zituen: «Bakegintzan eta normalizazio politikoaren bidean aurrera egitea eta Estatu eredu deitzen denari buruzko eztabaida handia bultzatzea». Hala, argi azaldu zuen EAJ ez dela Madrilera «kalkulu aritmentiko hutsak» egitera joango, eta gai horiei buruzko adostasuna behar dela.

GIPUZKOAKO Kongresurako eta senaturako hautagaiak aurkezteko unean, Madrilgo erakunde horietan egoteak zer garrantzi handia duen azpimarratu du EAJk. «Euskal gizarteak bere buruari eman nahi dion dimentsio berriaren —beste erritmo horren— lekuko izatea da EAJren helburua, eta horretarako aurkeztu nahi ditu EAJk hautagaiak lau lurraldeetan», esan zuen Joseba Egibar EBBko eledunak.

Halaber, Madrilén EAJren ardatzak zein izango diren azaldu zuen Egibarrek: «Bakegintzan eta normalizazio politikoaren bidean aurrera egitea eta Estatu eredu deitzen denari buruzko eztabaida handia egitea izango dira EAJren ardatzak Kongresuan eta Senatuan». Halaber, «Ma-



Xabier Albistur, Joseba Egibar eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri, Gipuzkoako beste zenbait hautagairekin.

drilera boto kalkulu artimetikoak eta matematiko hutsak egitera» ez doazela azaldu zuen.

Ildo horretan, PSOE-IUK eta PPk hauteskunde osteari begira egingo dutena izan zuen hizpide. «Gugana datoz, keinuka, baina oker dabilta. EAJk gaiak eta arazoak aurkeztu ditu eta horien konponbidea lortu nahi du», azaldu zuen Egibarrek. Batzuen eta besteen jarrera egun antzekoa dela azaldu zuen, eta, adibide gisa, PSOE-IU akordioa aipatu zuen, «gaiari terrorismo goiburua jarri baitiote, ez bakegintza». Halaber,

zera gaineratu zuen: «Eztaba daidan sartuko dira euskal gizarteak bere etorkizuna diseinatzen doan heinean».

«Mayor gogoan, EAJren aldeko apustua»

EAJren Gipuzkoako Kongresu eta Senaturako hautagaien izenean Xabier Albisturrek eta Joxe Joan Gonzalez Txabarri zerrendaburuek hitz egin zuten. «Abertzaleen aurkako erasoaldia latza denean jende abertzalea nazka-nazka eginda dagoela ikusten dugu kalean erasoaldi horregatik. Martxoaren 12a egokiera

apartekoa da Mayor Oreja bere tokian jartzeko. Mayor beti kontra jartzen da; guk alde joatu nahi dugu, herri honen alde». Halaber, ETari «nahikoa» dela ere esango diotela esan zuen. Txabarrirentzat «EAJren aldeko boto abertzale bakoitzak une honetan esanahi politiko berezi du. Abertzaleen boto bat bera ere ezin da zakarretara joan». Datozen urteetan «erabaki garrantzitsuak» hartuko direla uste du, eta erabakigune guztietan ordezkariak behar dela esan zuen. «Diputatuak behar ditugu Madrilén», esan zuen.

Aznarrek Bilboko bidaian izan dituen hauteskunde gastuak ikertuko ditu EAJk

Diru publikoarekin ordainduko direla susmo du

Erredakzioa / Bilbo

JOSE MARIA AZNAR Espainiako gobernuburuak asteartean Bilbora eginiko bidaian izan zituen hauteskunde gastuak ikertuko dituela iragarri zuen atzo EAJk. Izan ere, susmo du gastu horiek denak, edo gehienak, diru publikoarekin ordainduko direla.

Segurtasun neurriei eta garraioari buruzko gastuetatik zati handi bat euskal administrazioak ordainduko duela gogoratu ondoren, EAJk dio Aznar Leondik etorri zela Bilbora, gaua Burgosen pasatu ondoren, eta berekin 150 kazetari eramanez. «Gastu horiek Moncloa edo PPk ordaintzen dituen ikertuko dugu», azaldu du ohar batean.

Hauteskunde gastuen artean kokatzen ditu El Sitio elkarteak antolatuta Aznarrek Euskalduna jauregian eman zuen hitzaldiak ere, Portugaleteko kultur etxera eginiko bisitakoa (bertan Ertzaintzak babestu behar izan zuela gogoratzen du) eta Jaime Mayor Orejak bisitan lagundu izanak sortu zituen gastuak ere. «El Ejidora joatea zen Barne ministroaren betebeharra, baina nahiago izan zituen alderdikideen txalo errazak», uste du EAJk.

Indarkeria bukatzeko elkarriketa politikoa beharrezkoa dela dio Buesak

Eduarne Begiristain / Gasteiz

FERNANDO BUESA Arabako PSE-EEren idazkari nagusiak atzo adierazi zuenez, «elkarriketa politikoa» ezinbestekoa da indarkeria amaitzeko. Elkarriketak ez duela «inor baztertu» behar gaineratu zuen. Era berean, Aznar, Arzalluz eta Ibarretxe gai horrekiko duten jarrera kritikatu zuen Arabako sozialisten idazkariak.

Adierazpenok PSE-EE eta IU-EBren Arabako Senaturako hautagaien aurkezpenan egin zituen Buesak, atzo, Gasteizen.

Bakearen defentsa eta indarkeria mota guztien gaitzespenari lehentasuna eman behar zaiola azaldu zuen sozialistak. Ildo horretan, «zauri asko» irekita daukela eta horiek «itxi» daitezkeen politika egokiak abian jarri behar direla gaineratu zuen.

Buesa pozik agertu zen PSEk eta IU-EBk lortutako akordioarekin, bere aburuz Espainiako Gobernuari begira ikuspuntu «desberdina» irekiko delako. Akordioarekin garai berri bat hasiko dela adierazi zuen, «jende arruntaren» arazoez ardura-

tuko den gobernu bat izateko aukera egongo baita.

Horren haritik, Arabako sozialisten idazkariak Espainiako Konstituzioa erreformatzeko beharra azpimarratu zuen.

IU-EBren eta PSEren hautagaiak

Kontxi Bilbao Senaturako Arabako IU-EBren hautagaiak, berriz, akordioak Senatuaren erreforma bultzatzeko balio duela azaldu zuen. Haren irudiko, Ganbera «lurraldeko ordezkari garbia» izango baita.



Fernando Buesa eta Jose Miguel Fernandez, hautagaien aurkezpenean.

Bestalde, Javier Rojo PSEko hautagaiarentzat akordioa gauzak aldatzen joateko «politika berri baten hasiera

da». Hautagai sozialistaren iritziz, bi alderdien arteko itunarekin Senatua «iluntasunetik» aterako da.